



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO APIRILAREN 9KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.04.09.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.  
Zinegotziak:  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Simon Iturria Alzuri jauna: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 3.-Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: laguntza eskaera.
- 4.-Vicente Arocena Andueza jauna: Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa:behin behineko onespen berria.
- 5.-Herriko osasun kontsultategia moldatzeko diru laguntza deialdia.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2018ko martxoaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-SIMON ITURRIA ALZURI JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Simon Iturria Alzuri jaunak Emizarreta alderdian dauden pinu eta 50 edo 60 akazien probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 207. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **3.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA: LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sortutako Garapenerako Nafarroako tokian tokiko Lankidetzaren Fondoan parte hartzeko gonbidapena, 2018ko proiektuetan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek 100,00 euroko laguntza ematea aipatutako fondoarentzat.

2) Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

### **4.-VICENTE AROCENA ANDUEZA JAUNA: ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:BEHIN BEHINEKO ONESPEN BERRIA.**

Arantzako Udalak, 2018ko urtarrilaren 8an egindako bileran, erabaki zuen Vicente Arocena Andueza jaunak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa behin behinekoz onartzea, 5. poligonoko 347. eta 348. lur zatiak babestu beharreko baso lurra izatetik Gorde Beharreko Ertainekoa Sakabanatutako Etxebizitzen lurrak izatera pasatzeko.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko txostena, non eskatzen duen lurra Babestu Beharreko Forestaletik Gorde Beharreko emankortasun ertaineko kategoria aldatu behar dela.

Ikusirik sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio gehigarria.

Ikusirik udaleko arkitektoen aldeko txostena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77. artikulua jarraituz.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik,ERABAKI DUTE:

1) Vicente Arocena Andueza jaunak sustatutako 5. poligonoko 347. eta 348. lur zatien egiturazko aldaketa berriro behin behinekoz onartzea.

2) Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea.

3) Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea.

### **5.-HERRIKO OSASUN KONSULTATEGIA MOLDATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.**

Ikusirik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 188/2018 ebazpena, non Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia onesten du herrietako kontsultategiak eta kontsultategi lagungarriak eraberritu edo handitzeko 2018ko obrak finantzatzeko asmoz.

Ikusirik herriko osasun kontsultategian egin nahi diren obrak.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuko Osasunbidea Departamentuari diru laguntza eskatzea herriko kontsultategia moldatzeko.

### 6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 25. ebazpenetik 44. ebazpena arte.

### 7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

### 8.-JOXE XABIER GONZALEZ LUKANBIO JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Joxe Xabier Gonzalez Lukanbio jaunak, Zapatagillearen Borda alderdiko hainbat zuhaitzen (gereziak, gaztainak, haritzak eta lizarrak) probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 666. eta 195. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Joxe Xabier Gonzalez Lukanbio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.



